

Gaur egungo hainbeste arazo, zergatik sumatzen dira intolerantzia arazoak balira bezala, eta ez esplotazio edo bidegabekeria gisa? Zergatik da proposatzen den erremedioa tolerantzia eta ez emanzipazioa, borroka politikoa baita borroka armatua ere? Berehalako erantzuna kulturantzun liberalaren oinarriko operazio ideologikoan aurkitzen da: *politikaren kulturalizazioa*. Ezberdintasun politikoak –inekualitate politikoek edo esplotazio ekonomikoek kondizionatzen dituzten ezberdintasunak– naturalizatu eta neutralizatu egiten dira, eta *toleratu* behar diren diferentzia ‘kultural’-tzat antzematen.

Slavoj Žižek,
Violence,
2008

Ez dago historia unibertsalik basakeriarik humanitarismora doanik baizik eta habailatik bonba megatonera

Theodor Adorno,
Negative Dialectics,
[1966] 1992

Ez dago zibilizazioaren dokumenturik modu berdinean barbarismoaren dokumentua ez denik

Walter Benjamin,
Illuminations,
1973

Kultura gure humanitateak erakusten duen kalitate eta ahalmenen bilakaera harmoniotsua da.

Samuel Taylor Coleridge,
On The Constituion of Church and State,
1830

Kultura erakutsia eta esana izan den hoberenez dago osatuta

Mathew Arnold,
Culture and Anarchy,
1869

Garai guzietan arte eta literaturaren onerizpen argikusia gutxiengo oso txiki baten eskuetan dago

Frank Raymond Leavis,
Mass Civilisation and Minority Culture,
1930

Bizi, esperientziatu, eta zientifikoki somatzen dugun kulturaren datu esentziala da gizakideak talde iraunkorretan antolatzen direla

Bronislaw Malinowsky,
A Scientific Theory of Culture,
1944

Kultura gure eguneroko biziaren materiale bera da, gure ulermen arruntenean adreiluak eta morteurua

Paul Willis,
Learning to Labour:
How Working Class Kids Get Working Class Jobs,
1977

Kultura arrunt-normala da

Raymond Williams,
Culture,
1981

* * *

Kritika kulturala kulturaren irakurketa zabal baten testuinguruan bilakatzen da soilik baliagarri. Kultura ulertu behar da prozesu eta joera sare konplexu batez osatuta balego bezala non 'goi' eta 'behe' mailako artea, kultura herritarrak [bernakularrak] eta masa kultura koordinatzen diren kultur-hegemonia garaikide nagusiaren eremu sakabanatu berri batean.

Michelle Wallace,

"Negative Images: Towards Black Feminist Cultural Criticism"
in *Cultural Studies*,

1992

Beraz ni mindu nahi baduzu, nire hizkuntzari buruz txarto hitzegi ezazu. Identitate etnikoa identitate linguistikoaren azal bikia da - ni nire hizkuntza naiz. Texasko espainol chicanoa legitimotzat onartzeko gauza izango ez naizen arte, -Tex-Mex eta hitzegiten ditudan beste hizkuntza guziak, - ezin dut onartu nire buruaren legitimitatea... eta ingeles hizlariekin moldatu behar naizen neurrian, alderantziz eurak nirekiko moldatu beharrean, nire mihia ilegítimoa bilakatzen da. Nire izatearekin ez naiz gehiago lotsatuta egotera beharturik izango. Nire ahotsa izango dut: indioa, hispanoa, zuria. Nire suge mihia, nire emakume ahotsa, nire ahots sexuala, nire poetaren ahotsa. Ixiltasunaren tradizioa gaindituko dut.

Gloria Anzaldúa,

Borderlands, La Frontera: The New Mestiza,

1987

* * *

Gure mundua ez da konplexua baina perfektoki sinplea. Batetik
homogeneizazio abstraktuaren eredia dago, kapitalak inposatu duena
mundua merkatu handi eta zabaltzat konfiguraturaz (merkatu-mundua).
Bestetik ideologia kultur-erlatibista dago, amaigabeko identitate hertsietan
saikatzan dena hizkuntza, etnia, erlijio, jenero eta abarren inguruko
aldarrikapenek singularitate kultur-komunitarioen errespetoa eta onarmena
eskatzen dutelarik. Baina bi prozesuak, hau da, finantzen globalizazioa,
kapitalaren subironotasun unibertsal-absolutu hutsa eta diferentzia
partikularisten inguruko identitatearen protesta/zelebrazioak guztiz
(perfektoki) elkarlotuta daude. Osotasun honen bi osagai artikulatuek bata
bestea mantendu eta islatzen dute.

Alain Badiou,

Saint Paul, The Foundation of Universalism,

2003